

# “Arkitektoek bi diskurtso erabiltzen dituzte, bat lagunentzat eta bestea gizartearentzat, eta uste dut akats bat dela”

## Joseba Larratxerekin solasean



Ander Zangitu Orbea  
Arkitektoa

Bidaltze data: 2018-03-21  
Onartze data: 2018-05-04

Joseba Larratxe marrazkilaria da eta urteetan Josevisky ezizenean sinatu ditu bere lanak. Orain arte marrazkiarekin loturiko orotariko lanak burutu ditu: umore-zintak, komiki informatiboak, ilustrazioak, ipuinak ilustratu... eta egun komikigintzan dihardu. Medio desberdinekin kolaboratu, kartelak, story board, diskoen portadak... egin ditu. Bere heziketa unibertsitarioa Donostian gauzatu zuen, ikasketaz arkitektoa da, baina bestelako arkitekto gisa identifikatzen da.

**Aldiri:** Zenbaki honetan «bestelako arkitektoen» inguruan jardun gara. Arkitektura ikasketak burutu, arkitektoa eta komikigintzan diharduzu. Zergatik hautu eta aldaketa hori?

**Joseba:** Nire kasua alderantziz ikusten dut. Bide naturalagoa izango zen Arte Ederrak ikastea edo horrelako zerbait. Txikitatik denok bezala marraztu dut, isilik egoteko paper eta arkatz batekin hasi nintzen. Gerora nik ez diot marrazteari utzi eta marrazten jarraitu dut. Nire afizioa pasio bilakatu zen eta 10-11 urterekin konkurtsoetan aurkezten hasi nintzen. Iritsi zen momentua ikasketak aukeratu behar nituela. Arte Ederrekin aurreiritziak nituen eta nire familian arkitekto asko izateak eragina izan zuen. Karreran nintzela marrazten jarraitu nuen, eta, besteak beste, eskolaren inguruko umore-zintak egin nituen.

**A:** Arkitektura-eskolan etengabe errealitateak irudikatu, eta modu batean arkitekturak errealitatera eramán genituen. Orain zure lanetik errealitateak azaleratzen dituzu. Nondik egiten da gizartearen gertuagoko erradiografia, marrazkigintzatik ala arkitekturatik?

**J:** Inoiz ez dut planteatu. Marrazketak gauza on bat du: maniobra-ahalmen handia daukala. Arkitektura, nahiz eta txikia izan, lan luzea da. Argiako portadak egiteko orduan hiru egunetan egiten ditut, askoz maniobra-ahalmen handiagoa dago eta horrela gehiagotan hitz egiteko aukera ematen dit. Esan daiteke ikusgaitasun handiagoa lortu daitekeela. Proiektu batean, adibidez, gauzatzen den hirigintzako proiektu batean, inpaktu handiagoa dauka portada batek baino. Arkitektura gauza ukigarriagoa da eta jendearen eguneroko bizitzan eragiten du. Alde horretatik erreparatuz arkitektura erantzukizun handiko arlo gisa ikusten dut, pertsonalki bertigoa emango lidake, jendearen egunerokoa baldintzatzen duelako. Marrazkiak, aldiz, jendearen bizitza goxatu edo gogaituko du. Ez da betiko gauza bat, erantzukizun txikiagoa daukat eta horrek lasaiago lan egitera bultzatzen nau. Adibidez, prentsarako lanak oso efimeroak dira, egin, kontsumitu eta ahaztu. Gutxi irauten dute, astebete...

**A:** Argia, H28, Gaztezulo, Aldiri, Xabiroi... argitaratutako lanetan gizartearen kritika bat egiten duzu. Kultura eta hizkuntza txiki batetik marrazteak errealitatearekiko atxikimendua sortzen dizu? Inspirazio-iturria al da?

**J:** Ogibideko lagunekin eztabaidatu dudán gauza bat da: zergatik sortzen edo marrazten dugu? Nik sortzen dut zerbait aportatu nahi dudalako, ez soilik euskalgintzari, baizik eta mundua hobetzeko helburuarekin. Horregatik neure burua gai sozialetan posizionatzen dut. Aktualitate-gaiak inspirazio-iturri dira, egunkaria irakurri eta pizten nauen albistea jorrazten dut. Betiere buelta bat ematen, umorea sartu eta gai hori salatzen. Gizartearen pil-pilean dauden gaiak lantzean, denuntzia bat egiten dut eta azkenean ekintza politiko bat gauzatu.



Autorretratu

**A:** Aurrekoan Iñigo Astizek esan zuen «formatua aukeratzeak emaitza baldintzatzen duela». Zure kasuan, formatuak eta publikatzeko medioak ere baldintzatzen al du sormen-prozesua? Egun, Internet eta sare sozialak erakusleiko klabeak dira?

**J:** Karrera garaian egin genuen esperimentu bat. Bizpahiru urtez umore-zintak publikatzen ibili nintzen aldizkarietan eta neure burua oso mugatuta ikusten nuen formatura. Beti hasi eta bukatu beharreko istorioak ziren. Askatasun gehiagoren bila, lagun batzuk elkartu eta Interneten jartzeko komiki bat egin genuen. Gure behar eta nahietara planteatu genuen: web orria, formatua, komikia irakurri bitartean musika... Interneterako artefaktu bat sortu genuen. Formatuarekin jolastu genuen, eta horren emaitza Kakalardo (KKLRD) da: Interneterako pentsatutako komikia. H28 ere Interneterako sortu zen. Orain, adibidez, proiektu handi batean nabil, nobela grafikoaren kontzeptuan oinarrituz, luzeagoa izan da, marrazkiek sinpleagoak izan behar dute, zuri-beltzean... formatuak baldintzatzen du. Xabiroin (Ikastolen Elkarteko komiki-aldizkaria), adibidez, A4 tamaina denez, koloretako marrazki handiak eta xehetasunez beteak egiten ditut. Formatuak marrazteko modua aldatzen du. Mezuetan, aldiz, gidolari batekin edo bakarrik marrazteak eragina du. Formatuak baldintzatzen du mezua, baina puntu bateraino, beti irteten da bakoitzaren pentsamendua.

**A:** Zure lanetan murgilduta, musika sorkuntza-iturria da. Willis Drummond, Joseba B. Lenoir, JP Lohian & Klonen Klana, Sixty Sexers-en... abestiak komikira eraman dituzu.

**J:** Gaztezulorako eginiko lan hauei «komiklip» deitzen diet. Nire inguruak asko baldintzatu nau. Txikitan kantak entzuten nituenean bideoklip posibleak imajinatzen nituen.

Iritsi zen momentu bat Sixty Sexerrren bideoklipa batzuk egin nituela eta gerora etorri direnak oso natural egin ditut. Irudia eta musika beti oso elkarrekin ulertu ditut. Komikiak eta istorioak egiteko orduan musikarekin egin izan ditut eta kantuak inspirazio-iturri izan dira. Esan daiteke komikien munduan musikak eta komikiak erlazio handia izan dutela: underground, punk mugimendua, apartheid...

**A:** Irudian oinarritzen den gizarte bat gara. Irudia komunikazio-tresna gisa erabiltzen duzu. Irudia eta mezua. Zerk du garrantzi gehiago? Zer iristen da jendearengana gertuago?

**J:** Irudiaren gizarte moduko batean gaude, irudia denerako erabiltzen da, eta era berean sentsazio daukat gizartean orokorrean irudi aldetik analfabetoak garela. Ez dakigu geure burua irudiz adierazten, hau da, gauzak azaltzeko ezintasuna dugu. Bestetik era berean, sentsazioa daukat jendeak ez dakiela marrazki bat apreziatzen. Politean edo itsusian gelditzen da jendea, eta ez ondo marraztuta dagoen. Orduan esan dezaket oraindik jendea iristen zaiola mezua. Nire pasioa marraztea da, eta orduak sartzen ditut ondo marrazteko. Lana eskatzen dit eta batzuek apreziatzen dute. Baina ez dakit zer puntutaraino gustatzen zaion jendea, metaforatik edo marrazkiatik. Nik uste metaforak indar gehiago duela.

**A:** Gauzak baloratzeko orduan, arkitekturan eta marrazkigintzan oso azkar adierazten dugu: polita-zatarra. Gizarte honetan, irudian oinarrituz eta hausnartzeko mugak ditugula, sentimenduak adierazten dituzu marrazkigintzan?

**J:** Komikiak beti konparatu ditut zinemarekin beste diziplinal/medio batekin baino gehiago. Komikiak berezkoa



Sekretua (JP Lohian & Klonen Klana)



ENTZUN KANTA.

duen espresio-erreminta sekuentzia da. Zerbaitekin espresa badaiteke sentimendua, sekuentzia da, eta plano-aukeraketarekin. Irakurleari eskutik hartu eta errealitatea erakutsi zuk nahi duzun puntutik. Hori da komikiaren magia, hau da, jendeari zer erakutsi erabakitzea. Adibidez Alan Moore komiki-gidoilari ingelesak dio bera ez dela komikilaria ezta idazlea ere, baizik eta magoa dela, chaman bat. Magia egiten du, jendeari gezurrak esan, istorioak asmatu, baina jendeak benetakoak izango balira bezala sentitzen ditu. Jendeari benetako sentimenduak sortzen dizkio gezurrak esanez, jendeari munduarekiko pertzepzioa aldatuz. Trikimailu horiek irudi-sekuentziaren bitartez egiten dira. Sekuentzien aukeraketan dago sentimenduen azpimarratzea. Ez da soilik gidoian zer esaten den, baizik eta zer erakusten duzun. Hor dago trikimailua eta horretan oinarritzen naiz nire pentsatzeko modua adierazteko.

**A:** Arkitektura elementu estatiko gisa sailkatu duzu eta marrazkigintza, aldiz, dinamiko moduan. Arkitektura muga edo lagungarri izan da zure marrazkigintzan?

**J:** Nahi dut sinetsi zeozertarako lagundu didala. Komikiak egiteko orduan ez dut uste, baina bai proiektuei ekiteko orduan eta lan egiteko moduan. Arkitekturaren faktore asko aintzat hartu behar dira, eta denak batera kristalizatu plano batean: legeak bete, erabilerak, «txuloa» izatea, espazioak ondo egotea... Horren atzean planifikazio eta diziplina bat eskatzen du, lan egiteko modu bat. Karreran hori ikasi nuen, lanak planifikatzen, diziplina aplikatzen eta uste dut gero nire ogibidean asko lagundu didala. Batez ere komikiak egiteko orduan.

Muga bat ere izan da, esaterako, etxe bat marrazteko orduan ezin dut sinpleki marraztu, xehetasunera joaten naiz. Bestetik,

pertsonak marrazteko orduan, eskolan estatuak marraztu genituen moduan irudikatzen ditut, oso adierazkorrak eta haien ezaugarriak asko markatzen ditut. Nire helburuetako bat eskolan barneratutako xehetasun-maila deskostea da.

**A:** Arkitekturari buruzko hitzaldi, mahai-inguru... eta abarretan erabiltzen den lengoaiari erreparatuz antzeman daiteke gizartetik aldentuta dagoela. Heldu gara arkitektoak momentu batean beste hizkuntza bat hitz egitera?

**J:** Baliteke. Karreran asko hitz egitera behartu gintuzten: proiektuak defendatzen, diskurtsoak eraikitzen... Esaten zenuena «txorrada» bat izan zitekeen, baina zure barne-logikan justifikatua egon behar zuen. Horrek marrazkilari-ibilbidean asko lagundu dit. Nahiz eta egiten duzun lana bikaina izan, jendeari azaldu behar diozu bikaina dela. Jende askok modu automatikoan egiten du lan (bere gustu, inspirazio...), baina interesgarria da egiten duzun hori zergatik egiten duzun ulertzea. Hor kokatzen dut hitz egiteko beste modu hori. Karrerak ematen dizkigu erremintak errealitatea deskribatzeko edo gutxienez nire lana deskribatzeko. Askok gustatzen zait nire lanaz eta besteenaz teorizatzea. Faltan botatzen dut beste komikilariekin eztabaidatzea.

**A:** Arkitektoen mezuak ez dira ulertzen gizartearen? Herriko hizkuntza eta arkitektura-hizkuntza horren urrun daude?

**J:** Erabat. Ez dakit ez ote den arkitekturaren akats historiko bat jendeari ez ulertaraztea zergatik egiten dituzten arkitektoek egiten dituzten gauzak. Iruditzen zait arkitektoek bi diskurtso erabiltzen dituztela, bat lagunentzat eta bestea gizartearentzat, eta uste dut akats bat dela. Bilatu beharko litzateke hitz egiteko modu «demokratikoago» bat. Askotan eraikitzen diren diskurtso batzuek, prentsan adibidez, platerak bata bestearen

gainean irudikatzen dute Basque Culinary Centerra, benetan hortik dator ideia? Ez da beharrezkoa eraikin batek plater batzuen itxura izatea, deskribapen mota hori jendea pozik uzteko diskurtso bat da eta eraikina hobeto ulertarazteko. Agian diskurtso horiek, propagandarako diskurtsoek, ez lukete existitu beharko. Arkitektoen diskurtsoa jendeari hizkuntza soilago batean ulertarazi beharko litzaioke. Komikilari bezala, egin ditudan tailer, aurkezpenetan... pedagogia egiten saiatzen naiz. Jendeari komikien espresio-erremintak azaldu, komikia ez dela generoa baizik eta medio bat, edozein gauza kontatu daitekeela... Jendea hezten saiatzen naiz. Arkitekturan egin beharko litzateke jendeari ulertaraztea arkitektoek nola pentsatzen duten...

**A:** Lehenago aipatu duzu komikigintzan hausnarketa falta nabari duzula. Gaur egun, arkitektura-eskolan ere hausnartzeko grina galtzen ari da.

**J:** Esan daiteke kontra egiten zaiola. Unibertsitateak Bolognaren planarekin eraman duen bidearekin unibertsitatearen garai bateko pentsamendu berriaren sortzailea ezabatu du eta merkatura bideratutako profesionalak sortzen dituen faktoriak dira. Pentsamendu-linea kentzean hausnartzea mozten da. Komikigintzan, orain arte ez da egon ikasketa arauturik, ez da ikasle-irakaslerik egon honen inguruko hausnarketak egiten. Frankotiratzaile batzuk egon dira, baina oso sakabanatuta eta bakoitza bere «etxean». Diziplina berria da eta esan daiteke diskurtso-maila baxua dagoela. Arkitekturan justu kontrakoa izan beharko litzateke, baina EHU erregresio bat pairatzen ari dela dirudi, unibertsitatearen ideia galtzen ari da eta goi-mailako ikasketa teknikoak bihurtu dira.

===

Info +: [josebalarratxe.tumblr.com](http://josebalarratxe.tumblr.com)



Larrun azala: Masiboki zelatatutako gizartea



2015eko Argia urtekarirako marrazkia